



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko ekainaren 27an

71 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

- Esako Udalarri buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).
- Nafarroako Gobernuaren giza baliabideen kudeaketaren sistema integralaren mekanizazioaren adjudikazioari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina (6. or.).

G Saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Esako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001ko martxoaren 19an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Esako Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 20010ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Esako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
 - II. Helburua (2. or.).
 - III. Norainokoa (2. or.).
 - IV. Finantza-egoerako orriak (3. or.).
 - V. Iritzia, ondorioak eta gomendioak (4. or.).
- Alegazioak (5. or.).

I. SARRERA

Esa Zangozako merindadean dago eta 255 biztanle ditu 1999ko abenduaren 31n.

Esako Udala Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitatean dago (hiri hondakin solidoen tratamendua, presio handiko ur hornidura eta oinarritzko gizarte-zerbitzua) eta ez du inolako erakunde autonomorik jarduteko.

Ondoko taulan Udalaren zenbateko nagusiak jaso ditugu:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak (pezetak, milioitan)	Aitorturiko eskubideak (pezetak, milioitan)	99-12-31ko langileria
Udala	51	66	2

Udalak lanaldi partzialeko idazkari bat eta zerbitzu anitzetako enplegatu bat ditu, eta horiez gain kanpoko bi aholkulari, bata hirigintza arlokoa eta bestea ekonomia, kontabilitate eta zerga arlokoa.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legeari, Nafarroako Toki Administrazioiko uztaillaren 2ko 6/90 Foru Legeari, eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Esako Udalaren 1999ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta gastuen eta dirusarreraren aurrekontu-betetzea fiskalizatu ditugu.

Fiskalizaturiko toki entitateari aplikatu beharreko araubide juridikoa, funtsean, lehen aipaturiko lege horiek, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuak eta administrazio-kontratazioari buruzko arauak osatzen dute, bai eta Nafarroako toki enteei modu orokorrean aplikatu beharreko gainontzeko araudiak ere.

Txostenaren helburua honako hauei buruz daukagun iritzia adieraztea da:

- a) Esako Udalaren 1999ko ekitaldiko aurrekontuen garapena eta betetzea.
- b) 1999ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, ezartzeko diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.
- c) Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun printzipioari egokitzen ote zaion.
- d) Udalaren finantza-egoera 1999ko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA

Kontuen Ganbarak, bere jarduketa-programari jarraituz, Esako Udalaren (hemendik aurrera,

Udala) fiskalizazioa burutu du, 1999ko ekitaldiari dagokiona.

Aurrekontu-kontabilitatean baino ez du jasotzen Udalak bere eragiketak, eskuz jaso ere, indarreko legediarekin bat. Ondorioz, dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak gain-begiratzeari lotu zaio lana, eta antolamendu, kontabilitate eta barne kontroleko alde batzuk aztertu dira.

Lana burutzeko, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauetara men egin diegu, eta beharrezkotzat jo ditugun frogak guztiak aplikatu ditugu, baldintzetan eta aurretik Udalarari bidali genion galdetegian azaldu diren arazo araberako.

Udalaren antolamendua, barne kontrola, eragingarritasuna eta efizientzia hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak bildu ditugu txostenean.

Kanpoko azterlana 2000ko azaroan egin da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Esako Udaleko langile guztiei, beraien lankidetzak gure lana erraztu duelako.

IV. FINANTZA-EGOERAKO ORRIAK.

Jarraian, Esako Udalaren finantza-egoerako orriak eta gastuen zein dirusarreraren aurrekontuaren likidazioa aurkeztuko ditugu, kapitulu ekonomiko araberako emanak:

Esako Udala, 1999

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea (pezetak, milakotan)

	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin-betiko aurreikuspena	Aitorturiko eskubideak	Dirubilketa likidoa	Kobratzeke
Ekitaldi itxietako erresultak	0		30.358	30.358	30.358	21.112	9.246
Zuzeneko zergak	1	10.600		10.600	10.065	5.433	4.632
Zeharkako zergak	2	4.800		4.800	3.223	2.412	811
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	3	6.556		6.556	8.135	4.081	4.054
Transferentzia arruntak	4	10.330		10.330	10.694	10.688	7
Ondare diru-sarrerak	5	1.260		1.260	659	659	
Inbertsio errealak besterentzea	6	100		100	3.000	3.000	
Kapital transferentziak	7	11.574		11.574			
Finantza-aktiboaren aldaketa	8						
Finantza-pasiboaren aldaketa	9	7.715		7.715			
Diru-sarrerak, guztira		52.935	30.358	83.293	66.135	47.385	18.751

Gastuen aurrekontuaren betetzea (pezetak, milakotan)

	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin-betiko aurreikuspena	Kitaturiko betebeharrak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeke
Ekitaldi itxietako erresultak	0		22.824	22.824	22.824	17.425	5.399
Langileen ordainsariak	1	8.245	800	9.045	9.790	9.271	519
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	2	21.351	(1.350)	20.001	13.208	11.969	1.239
Korrituak	3	500		500	335	335	
Transferentzia arruntak	4	1.475	250	1.725	3.202	3.195	7
Inbertsio errealak	6	20.964		20.964	1.150	1.150	
Kapital transferentziak	7	400	300	700	896	896	
Finantza-aktiboen aldaketa	8						
Finantza-pasiboen aldaketa	9						
Gastuak, guztira		52.935	22.824	75.759	51.405	44.241	7.164

EGOERA EKONOMIKOA	Hasiera	Aldaketak	Behin betikoa	Amaieran	Funtsen mugimendua	Zordunak/ Hartzekodunak
Diru-sarrerak, guztira	52.935	30.358	83.293	66.135	47.385	18.751
Gastuak, guztira	52.935	22.824	75.759	51.405	44.241	7.164
Aldeak	—	7.534	7.534	14.730	3.144	11.587

**V. IRITZIA, ONDORIOAK ETA GOMENDIO-
AK**

Buruturiko fiskalizazioaren barruan, Esako Udalaren 1999ko ekitaldiko gastuen eta dirusararren aurrekontu-betetzearen egoera aztertu dugu.

Sektore Publikoko kontuen ikuskaritza egiteko, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako arau eta prozedurak aplikatu ditugu.

Eginiko azterketak honako iritzia haur eragin du:

V.1. 1999KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA DELA-ETA.

1999ko aurrekontuaren likidazioak behar beza islatzen ditu fiskalizaturiko ekitaldian Esako Udalak eginiko eragiketak, baina badaude salbuespen batzuk. Hona:

Gastuen aurrekontuan transferentzia arruntak bailiren kontabilizatu dira 1.678.121 pezeta, berez aurrekontuko gastu gisa kontabilizatu beharrean aurrekontuaren balore independente eta lagungarri (ABIL) gisa kontabilizatu beharko zirenak.

**V.2. ONDARE-EGOERAREN AGERPENA
1999KO ABENDUAREN 31N**

Ondareari buruzko kontabilitaterik ez dagoenez, ezin dugu iritzirik eman 1999ko abenduaren 31n udalak zeukan ondare-egoerari buruz.

V.3. LEGEZKOTASUNA

Esako Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa, oro har, legezketasun-printzipioari jarraituz burutzen da, nahiz eta indarreko arau batzuk hausten direla antzeman, aurrekontuko kontabilitate arloari eta administrazio kontratazioari buruzkoak batez ere.

IV.4. EKONOMIA ETA FINANTZA EGOERA

Udalak 9 milioi pezetako superabita izan du 1999ko ekitaldian, aurreko ekitaldietako erresultak kenduta. 1999ko abenduaren 31ko diruzaintzako gerakina 5.4 milioi pezetakoa da -3 milioiko gerakina zoladura, hornidura eta saneamendu sareko obretarako da eta 2.4 milioi obra orokorretarako.

Udalak badu zorpetzeko ahalmena, baina kontuan hartu behar da ahalmen hori gutxitu eginen dela 1998an hitzartutako 7.9 milioiko maileguaren gabezia bukatzen denean eta diruzaintzako

gerakina ez dela nahiko inbertsio handial finantzatzeko. Aurreko ekitaldietatik kobratu gabe dagoena kudeatu beharko luke Udalak, aurrerago egin beharreko inbertsioak finantzatzeko baliabide gehiago izatearren eskueran.

Laburbilduz, eta ondorio orokor gisa, Esako Udalak barne kontrola eta kontabilitate kontrola hobetu behar dituela esan daiteke, eta horretarako beharrezkoa da:

- Kontabilitate-sistema osatzea, udal errealitatearen ikuspegi osoa eman dezan. Hori dela-eta, aipatu behar da Udalak hitzarmena egin duela 2000ko ekitaldirako Toki Administrazioako Departamentuarekin kontabilitatea araudi berrira egokituta informatizatzeke, eta horrek udalaren kontabilitate-sistema hobetzen lagunduko du.

- Aurrekontutze-teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko, batez ere inbertsioen eta transferentzia arrunten alorrekoak.

- Beharrezkoak diren prozedurak ezartzea aurrekontu-kreditu nahiko dagoela egiaztatzeke, gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriaren araberrako aurrekontu-aldaketak egin baino lehen. Ekidin egin behar da obligazioak aitortzea baldin eta kreditu eskuragarria baino gehiago egingen badute obligazio horiek, horixe gertatzen baita langileen gastuen, transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien kapituluetan.

- Dagokion kapitulu ekonomikoan edo aurrekontutik aparteko balore gisa egozteko gastu bakoitza eta gastuen eta dirusarreraren arteko konpentsazioak ekiditea.

- Kontabilitateko agiriak behar bezala dokumentatzea.

- Lehengo udal idazkariaren egoera erregularizatzea –Udalak Gizarte Segurantzari kotizatzen jarraitzen du–, Nafarroako Auzitegi Gorenak 1999ko abuztuan emandako epaiari jarraikiz.

- Sortzapenaren irizpidea erabiltzea interesak kontabilizatu eta banketxe maileguak amortizatzean.

- Beharrezkoak diren informazio-prozesuak abiaraztea jasotako dirulaguntzen bidez finantzatzaren diren gastu eta inbertsioen segimendua egiteko:

a) Ekitaldi bakoitzeko gastuak eta dirusarrerak proiektuak irauten duen bitartean. Bertan adieraziko dira kontusaila, aurrekontua eta aitortutako obligazioak eta likidatutako eskubideak.

b) Dirusarreretako finantzazio-koefiziente eta desbideraketak, bai metatuak bai urte horri egotzi beharrekoak.

- Kontratuei buruzko Foru Legean adjudikazioei eta hasierako kontratuaren aldaketei buruz ezarritako prozedurak errespetatzea.

- Lurren balioaren igoeraren gaineko zerga likidatzea.

- Alokatuta dauden udal jabetzako higiezin kudeaketa berrikustea, alegia, urteko KPIren arabera gaurkotzea ordainagiriak eta kontzeptu hori dela-eta jasotako dirusarrerak sortzapenaren printzipioari jarraikiz erregistratzea.

- 1999ko abenduaren 31ko zordunak banan-banan identifikatzea, urtea eta zorra zeri zor zaion zehaztuz, eta horiek kobratzeko legeak ezartzen duen premiamendu bidea baliatzea.

- Balio erantsiaren gaineko zerga aurrekontu kanpoko eragiketatzat hartzea.

- Fidantza eta abalen saldo biziduna eta balore independenteen saldoa identifikatu eta kontrolatzea.

- Kutxako liburuan jasotzea egindako eragiketa guztiak eta saldoa aldizka adostu eta egiaztatzea.

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2001eko martxoaren 14an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

ESAKO UDALAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Esako Udaleko alkateak, 2001eko martxoaren 9an, ondoren hitzez hitz ematen den erabakia hartu zuen:

Nafarroako Kontuen Ganbarako lehendakariak 2001eko martxoaren 2an hartutako erabakiaren bidez onetsi zen Esako Udalari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostena –1999ko ekitaldiko–, eta hartan, alegazioak egiteko epea ezarri zen.

Bada, erabaki hori ikusita eta legeriak alkate-tza honi emandako eskumenak baliatuta

ERABAKI DUT:

Lehendabizi.- Esako Udalari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostena –1999ko ekitaldiko– jaso eta haren edukia ezagutu dudala adieraztea, eta ez dudala alegaziorik egingen.

Bigarren.- Nafarroako Kontuen Ganbarak barne kontrola eta kontabilitatearen kudeaketa hobetzarren egindako gomendioak onartzea, eta orobat adieraztea gomendio horiei buruzko balorazio oso ona egin dugula; izan ere, udala hasi da horiek betetzen, ziur baitago hori egitean kudeaketa hobea eta eragingarriagoa izanen dela.

Hirugarren.- Erabaki honen berri ematea Nafarroako Kontuen Ganbarako lehendakariari eta eskerrak ematea erakunde horretako langileei udalarekiko izan duten jarrerarengatik.

Esan, 2001eko martxoaren 9an

Alkatea

Nafarroako Gobernuaren giza baliabideen kudeaketaren sistema integralaren mekanizazioaren adjudikazioari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001ko maiatzaren 14an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Nafarroako Gobernuaren giza baliabideen kudeaketaren sistema integralaren mekanizazioaren adjudikazioari buruz egindako fiskalizazio txostena, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2001ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Gobernuaren giza baliabideen kudeaketaren sistema integralaren mekanizazioaren adjudikazioari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (6. or.).
- II. Helburua eta norainokoa (7. or.).
- III. Prozesuaren deskribapena (7. or.).
 - III.1. Langileen kudeaketa (7. or.)
 - III.2. Proiektu berria (7. or.)
- IV. Ondorioak eta gomendioak (8. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2001eko urtarrilaren 29an eginiko bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak eskatuta, erabaki zuen Kontuen Ganbarari eskatzea Nafarroako Gobernuaren giza baliabideen kudeaketaren sistema integralaren mekanizazioaren adjudikazioari buruzko fiskalizazio txostena egin zezala.

Parlamentuko talde horren eskariaren azalpean esaten denez, 1998ko apirilaren 30eko Foru Agindu bidez onetsi zen lehiaketa publikora ateratzea aipatu espedientea, 170 milioi pezetako aurrekontuarekin eta urtebeteko epean egiteko. Gero, urte bereko irailaren 14ko Foru Agindu bidez, Informática El Corte Inglés, S.A. (IECISA) enpresari esleitu zitzaion haren kontratazioa.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak galdera parlamentario bati 2000ko uztailaren 17ko emandako erantzunean esan zuen:

- Enpresa hartzaileari ordura arte ordaindutakoa 115 milioi pezeta zela.
- Nominak egiteko prozesu paraleloa abuztuan eta irailean eginen zela Tuterako Osasun Barrutian, eta gainontzekoetan 2000ko urrian eta azaroan ezarriko zela prozesu hori bera.
- Egitura organikoaren eta lanpostuen kudeaketaren moduluak, pertsona, nomina, egutegi eta txanden eta aurrekontuaren jarraipen moduluekin batera, 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen dutela eragina.
- Berandutzeagatik kontratuan aurreikusitako isuna ez zela jarri, administrazioak luzapena onartu ziolako kontratistari "horretarako bidezko arrazoiak" zeudelako.

Halere, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak jakin izan duenez, ez dira betetzen ari ezta administrazioak kontratistari luzapena eman ondotik ezarritako epeak ere, eta zerbitzu hori betetzeko IECISA enpresari ezarritako epea agortu zenetik hamasei hilabete igaro diren arren, oraindik ez da egin Nafarroako Gobernuaren giza baliabideen kudeaketaren sistema integralaren mekanizazioa 1998ko apirilaren 30eko Foru Aginduan ezarri legez; horrenbestez,

Kontuen Ganbarak esku hartu behar duela uste dugu.

II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Txosten honek xede du Parlamentuaren eskareri erantzutea, eta, bereziki, Nafarroako Gobernuaren giza baliabideen kudeaketaren sistema integralaren mekanizazioaren adjudikazio eta exekuzio espedientea berrikustea, haren legezkontasuna eta betetze maila aztertzeko.

Horretarako, espediente horri buruzko dokumentazioa eskatu genion Antolaketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusiari, eta elkarrizketak izan ditugu Antolaketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusiko eta Lehendakari-tza Departamentuko Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko, Hezkuntza Departamentuko eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko arduradunekin.

Auditore batek eta auditoretzako teknikari batek martxoan egin dute lana, Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Gobernuko aipatu departamentuei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

III. PROZESUAREN DESKRIBAPENA

III.1. LANGILEEN KUDEAKETA

Nafarroako Gobernuko langileen kudeaketa Lehendakari-tza Departamentuko Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak egiten du. Dena den, Osasun (Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua), Hezkuntza eta Gizarte Ongizate departamentuetako hainbat eginkizun dezentralizatu egin dira. Gogorarazi egin behar da orobat jarduneko langileen kudeaketa ez ezik langile pasiboena –funtzionarioen montepioko langileena– ere egiten dela eta Hezkuntza Departamentuak hezkuntzako langile hitzartuen nominak kudeatzen dituela. Gastu hori transferentzia gisa kontabilizatzen bada ere, gainerako langileena bezala kudeatzen da.

Laburbilduta, hau da egoera:

- Funtzio publikoa: arduradun nagusia da, langileen kudeaketa osoari buruzko irizpide nagusiak ezartzen ditu, eta hark egiten du zuzenean administrazio erroa deitutakoaren kudeaketa. Administrazio erroa Nafarroako Gobernuko departamentuek osatzen dute, salbu eta ondokoek:

- Osasun Departamentua: Funtzio Publikoak emandako jarraibide nagusiei jarraikiz egiten du departamentuko langileen kudeaketa.

- Hezkuntza: Osasun Departamentuak bezala egiten du langileen kudeaketa.

Arrazoiak beretsuak dira bi kasu horietan, alegia, enplegatu kopuru altua, gainontzeko funtzionarioen aldean ezaugarri berekiak dituztenak, besteek ez bezalakoak.

- Gizarte Ongizate Departamentuak ere arrazoi berberengatik bere gain hartzen du langileen kudeaketari buruzko zenbait ardura.

Jarduera horretan bi alderdi bereizten ahal dira: nominak egitea eta giza baliabideen kudeaketa dei dezakeguna.

Nominak egitearena dezentralizatuta dagoen arren, GIP izeneko programa informatikoaren bitartez egiten da. Programa hori aspaldikoa da, enplegatuak bost mila bat zirenean erositakoa eta hilero egiten diren nominak –20.000 inguru– egiteko egokitu dena. 2000 urteko beharrianetara egokitu ahal izan da eta aurre egin ahal izan die "quinquenio del burro" izenez ezagutzen den bosturteko saria aplikatzearen ondorioz nominak berriz kalkulatzeko izan diren erreklamazioak guztiei.

Programa hori bere ahalmenaren mugara iritsi da une honetan, eta, haren antzintasuna dela eta etorkizunean aldaketak egitea zaila izanen da.

Giza baliabideen kudeaketa (kontratazioak, plantillak, lanpostuak...) unitate bakoitzak egiten du, nork bere baliabideak erabilia, ez baitago tresna bakar bat. Hortaz, era guztietako programak erabiltzen dira, beharrianen arabera denboran zehar lortu edo taxutu direnak.

III.2. PROIEKTU BERRIA

Gauzak horrela, langileen kudeaketa egiteko programa integral berri baten beharra planteatu zen, GIP ordeztu eta erantzun homogenea emanen diena giza baliabideen kudeaketa modernoak egiteko zentroek dituzten beharrei.

Beharrian hori, berriz, ez da berria; izan ere, azken hamar urteotan egin izan dira horri buruzko jarduketak eta azterlanak.

Nafarroako Gobernuak 1995eko abenduan onetsi zuen Nafarroako Foru Komunitateko eta haren menpeko erakunde autonomoetako administrazioko ordezkarien eta AFAPNA, CC.OO, UGT eta ELA sindikatuen artean sinatutako hitzarmena –Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen 1996tik 1999ra bitarteko lan bal-

dintzei eta administrazioa modernizatzeari buruzkoa.

II. tituluan –"Administrazioaren eraginkortasuna hobetzeko neurriak hartzeari buruzko akordioak"– eta 3. idatz-zatia –"Helburuen koordinazio eta harmonizazioa"– esaten da "Langileen Kudeaketa eta Erregistro Sistema (GPR) ezarriko da, langileen kudeaketarako tresna korporatibo gisa".

Antolaketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusiak, 1997an, Nafarroako Gobernuan erabilitako giza baliabideei buruzko sistemen inbentarioa egin zuen, baliabide horien kudeaketa zertan den ezagutzeko.

1997ko maiatzean, Antolaketa eta Informazio Sistemen zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez, Nafarroako Gobernuaren giza baliabideen kudeaketaren sistema integrala planifikatu eta definitzeko azterlan zuzenean kontratatzeko espedientea onetsi zen, eta CGI Informática, SA enpresari esleitu zitzaion, 10.407.000 pezetatan.

Azterlan hari jarraipena emateko ekin zitzaion giza baliabideen kudeaketaren sistema integralaren mekanizazio integralari eta, ondoren, hura ezartzeari. Horretarako, 1998ko apirilean, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren 34/1998 Foru Aginduaren bidez, lehiaketa bidezko kontratazio espedientea onetsi zen, 170 milioiko aurrekontuarekin.

1998ko irailean, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren 137/1998 Foru Aginduaren bidez, kontratazioa Informática El Corte Inglés, S.A. enpresari esleitu zitzaion, 170 milioitan eta 12 hilabeteko epearekin.

Espedientea egiteko ondoko baldintzak ezarri ziren:

- Giza baliabideen kudeaketa osorako proiektu globala egitea.
- Merkatuko produktu bat erostea; hori eginez gero, programa orokorrari egindako aldaketa eta hobekuntzak programaren jabe den enpresak bere gain hartuko ditu bertsio berrietan.
- Hortaz, baztertu egin da baliabide berekiak erabilia programa bat sortzea, merkatuko produktu bat erostea ustez hobea delako mantentzeari begira.

Adjudikazioa egin zenean, merkatuan ez zegoen giza baliabideak kudeatzeko programarik sektore publikora egokituta, baina enpresa batek bazuen administrazioarako bertsio generalista bat, autonomia erkidegoek erabili ahal izateko adina zehaztasunik ematen ez zuena. Baziren, bai, enpresa pribaturako programak, eta enpresa

batzuk hurrengo bertsioetan horiek egokitzeko prest azaldu ziren.

Halako programek eskainitako aukera sorta oso zabala da, kasuan kasuko egokitzapenak egin behar izaten dira; izan ere, beharizan batzuk erabiltzailearen arabekoak direnez ez dira programan jasotzen, eta garatu egin behar izaten dira.

Hartara, oro har, harreman hirukoitza eraten da, bezeroaren, programa banatzailearen eta egokitzapenak egin eta egokitutako programak garatzeko enpresaren artekoa –ez dira bera izaten programa banatzailea eta egokitzapenak egin dituenak.

Lehiaketara bost enpresa aurkeztu ziren: INDRA, IBM, IECISA, DIGITAL eta SEMA. Eskaintzan, aldiz, SAP, META4 eta HRACCES oinarriko programak jasotzen ziren. Adjudikazioaren hartzaile IECISA suertatu zen, META4 programa eskaintzen zuena.

IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Nafarroako Gobernuaren giza baliabideen kudeaketaren sistema integralaren mekanizazioaren espedientea aztertzean ateratako ondorioak laburbiltzen dira atal honetan.

Bat. Begi-bistakoa da komenigarria dela giza baliabideak kudeatzeko sistema berria ezartzea; batetik, nominen programa eguneratzeko –egun-goak, zaharra delako ezin die erantzun beharizan berriei–, eta, bestetik, erantzun homoginoa emateko giza baliabideen kudeaketako beharizanei.

Bi. Nafarroako Gobernuak giza baliabidea kudeatzeko –nominak kudeatzeko eta kudeaketa bera egiteko– dituen beharizan guztiei erantzungo zien programa integrala merkatuan erosteko hautua egin zen.

Hautu horren abantaila da aprobetxatu egin daitezkeela programaren bertsioetan eginiko hobekuntzak, hau da, enpresa banatzaileak egin du neurri handi batean mantentzea.

Hiru. Espedientea abiarazi zen garaian (1997-1998) ez zegoen martxan halako programarik administrazio publikoetan. Enpresa batzuk lanean ari ziren euren programak, sektore pribaturako zirenak, sektore publikora egokitzeko. Hartara, halako proiektu bat erreferentzia bat izan zitekeen gainontzeko administrazioentzat, baina aldi beran, esperientzia ezak arriskutsu egiten zuen.

Lau. Kontratazio espedientea berrikustean –kontuan izanik espedienteari buruz arestian

aipatutako ezaugarriak eta espedientea esleitu zenean merkatuaren egoera zein zen— ez dugu nabarmentzeko moduko ezer aurkitu eta, hortaz, akatsik gabekotzat jo behar da.

Kontratua 1998ko urriaren 5ean sinatu zen, eta 12 hilabeteko epea zegoen hura betetzeko, kontratua sinatzen zenetik aitzina.

Kontratuko hirugarren klausulak dioenez "administrazioak egoki irizitako luzapena onartu ahalko dio kontratistari, baldin eta horretarako bidezko arrazoiak badaude, baina horrek ez du eragotziko klausula honetan aipatutako zehapenak ezartzea".

Kontratuak bukatuta behar zuen 1999ko urriaren 5ean. Txosten hau egin denean, ordea, bukatu gabe dago oraindik eta ez da jasota ageri administrazioak luzapena baimendu duenik, ezta aurreikusitako zehapenak aplikatu dituenik ere, nahiz eta zuzendaritza batzorde bat eta jarraipen batzorde bat egon, aldiro bildu eta betetzerakoan gertatutako atzerapenaren berri izan duena.

Baldintza administratiboen pleguko 22. klausulak jasotzen duenez, 60 milioi pezeta ordaindu behar ziren 1998ko abenduaren 31n; 1999ari zegokion ehuneko 50 1999ko maiatzaren 31n, eta gainontzeko ehuneko 50 lanak jasotzekoan ordaintzea aurreikusi zen.

Aurkeztu eta ordaindu diren ordainagiriak lehendabiziko bi epeei dagozkie, eta gaur egun 55 milioi pezeta falta dira, lanak jasotzekoan ordaindu beharrekoak hain zuzen ere. 6,8 milioi pezeta-kofidantza ere indarrean dago.

Bost. Proiektua exekutatzeko egin beharrekoak Nafarroako Gobernuko langileek, IECISak —proiektuaren hartzailea— eta META4k —softwarearen banatzailea— osatutako lantaldeak egitea aurreikusi zen.

Klausula teknikoen pleguan zuzendaritza batzordearen eta jarraipen batzordearen osaketa jaso zen, bai eta Nafarroako Gobernuak proiekturako ezarritako lantaldearena ere. Ondokoek osatzen zuten lantaldea:

- Zuzendaritza batzordea, erabaki estrategikoa hartzeko ahalmena zuena.
- Proiektu osoaren jarraipen batzordea, erabaki eragileak hartzeko ahalmena zuena eta proiektua zuzendu eta etengabe kontrolatu behar zuena.
- Langile funtzionalak, giza baliabideak eta nominak kudeatzen esperientzia dutenak. Parte hartze aktiboa izanen dute:

a) Sistemaren eginkizunak eta eskakizunak definitzen.

b) Sistemako moduluak egiaztatu eta balidatzen.

c) Eginkizun eta prozeduren barne dokumentazioan.

Akten bidez ikus daitekeenez eta aurkeztutako kronogramen arabera, atzerapena metatuz joan da proiektuan. Zuzendaritza batzordea eta jarraipen batzordea 2000ko ekainean eta uztailan bildu ziren, hurrenez hurren, azkeneko aldiz.

Sei. Txosten hau egitean —2001eko martxoa—, lana bukatu gabe dago, eta espedientean ez dago hori justifikatzeko inongo txostenik. Kontuen Ganbarara igorritako informaziotik ondorioztatzen denez:

- Nafarroako Gobernuko langileek aintzat hartzeko moduko ahalegina egin dute giza baliabideak kudeatu eta nominak egiteari buruz, beharriaren definizioa eta azterketa egin ahal izateko. Enpresa hartzailearen eta Nafarroako Gobernuaren arteko lan honek programa informatikoak egokitzekeo abiapuntu izan behar du.

- Egokitzapen lanaren eta diseinu lanaren arteko erlazioa nabarmen aldatu da.

- Softwarea banatzen duen enpresak ez du bertsio berrietarako egokitzapenik egin, eta gainera, une larriak pasatzen ari da.

Zazpi. Egoera horren aurrean, eta prozesu jakin batzuk garatzen ez zirenez, Kontuen Ganbararen ustez, ezin izanen da programa aplikatu, ez baitira aurreikuspen guztiak bete eta, horrenbestez, ezin izan baitira ordeztu egungo programa guztiak. Aplikazio partziala eginez gero, programa zaharrak mantendu beharko liriateke, eta behar bada kudeaketa areago konplikatu litzateke.

Zortzi. Zuzendaritza batzordeak txostena egin ez duen bitartean ezin dugu jakin zein izan diren egoera honetara heltzeko azken arrazoiak, baina bai ikus daiteke asmo handiko proiektua dela, dauden aplikazio sakabanatuak ordeztu eta homogeen bihurtu nahi dituenak. Aldaketa ugari jasan ditu erabiltzaile ugarien beharriazetara egokitzeke; hasieran aurreikusitako kasuan kasuko garapena ez da aski izan, eta programa banatzen duen enpresak ez du aurreikusitakoaren arabera garatu programa. Horri buruz, azpimarratu behar da Nafarroako Gobernuak ez zuela enpresa horrekin sinatu kontratua, baizik eta IECISArekin.

Egoera horren aurrean, hona Kontuen Ganbararen gomendioak:

- Nafarroako Gobernuaren giza baliabideen kudeaketa egiteko programa bat ezarri beharrak bere horretan dirau.

- Zuzendaritza batzordeak edo organo eskudunak erabaki behar du orain arte egindako lanak balio duen ala ez eta horiei buruz irtenbidea zein den erabaki beharko du.

- Egungo atzerapena zer eragiten ari den jakiteko txosten teknikoek esaten dutenaren arabera hartu beharko ditu Nafarroako Gobernuak kontratua betetzeari buruz bidezkoak diren lege-neurriak.

Kontratuei buruzko legeak ondokoak ezartzen ditu oro har:

a) Kontratuko epeak aldatu eta luzatzea, baldin eta gertatutako atzerapena ezin egotz bada kioke kontratugileari eta kontratua oraindik ere bete badaiteke.

b) Zigorak ezartzea kontratugileari, lanak egitean berandutza gertatu eta hura baldin bada kontratua betetzeko gertatu den berandutzaren erantzule.

c) Kontratua amaiaraztea. Hau bezalako kasuetan bi modutan egin liteke batez ere:

1. Kontratugileari egoztekoak diren arrazoien gatik amaiarazi bada kontratua, fidantza kenduko zaio eta gainera kalte-ordaina eman beharko dio administrazioari eragindako kalte-galerengatik baldin eta horien zenbatekoak fidantzarena gainditzen badu. Kontratugileak solilik izanen du eskubi

dea jasotzeko kontratuari jarraikiz egiazki egin eta administrazioak jaso dituen lanen zenbatekoa.

Aztertzen ari garen kasuan, Nafarroako Gobernuak aztertu egin beharko du ea ordaindutako zenbatekoa –115 milioi– kontratuan aurreikusitako betebeharrak betetzearren egiazki egindako lanei dagokien eta administrazioak jasotzeko moduko munta eta erabilgarritasun nahikoa duten.

2. Bi aldeak ados jarrita amaiarazi bada kontratua, bi aldeek erabakitzen dutena aplikatuko da. Halakorik soilik egin daiteke baldin eta ez badago kontratugileari ez beste inori egotz dakiokeen arrazoirik kontratua amaiarazteko eta, interes publikoa zein salbuespenezko beste zirkuntantzia batzuk direla medio, kontratuari eustea beharrezkoa edo egokia ez balitz.

- Beharrezkoak diren neurriak hartzea Nafarroako Gobernuak ahal bezain laster izan dezan giza baliabideak kudeatzeko programa bat. Hor-taz, esleitutako lana bideragarria ez bada eta egindako analisisa aprobetxatzeko, bi aukera dira: merkatuan dauden programa berriak erosteko posibilitatea aztertzea edo programa bereki eta eskusiboa garatzea.

Auditore Jesús Muruzabal Lerga jauna da lan hau egitearen arduraduna, eta berak proposaturik eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarrirako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 8an.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--